

HASIERA

GAIK

ANTZERKIAARTEABERTSOLARITZADANTZAERAKUSKETA EUSKARA
IRITZI ARTIKULUAK JAIALDIAK JARDUNALDIAK LITERATURA MUSIKAZINEMA
BESTELAKOAK

ATALAK

KONTALARIAK BEREZIAK BULETINAMULTIMEDIA GURE BAZTERRETATIK
KS ARETOA

HERRIALDEKA

ARABANAFARROA BEHEREABIZKA IAGIPUZKOALAPURDINAFARROA
ZUBEROAEUSKALHERRIA

ZOKKETAK

DENDAOSTEKOAKAMAK

HOME / GAIK / LITERATURA / PELLO LIZARRALDERENTZAT EUSKARAZKO LITERATURA EUSKADI SARIA



(argazkia: 111 Akademia)

LITERATURA NABARMENDUAK PORTADAN

PELLO LIZARRALDERENTZAT EUSKARAZKO LITERATURA EUSKADI SARIA

By KulturSharea / 2021-10-14

Argiantza eleberrigatik eman diote saria Lizarralderi. Anjel Lertxundik, berriz, Euskarazko Haur eta Gazte Literatura saria eraman du eta Joxan Elosegik Euskarazko Literatura Itzulpena saria.

Eusko Jaurlaritzak gaur iragarri ditu Euskadi Literatura sarien lehen irabazleak: Euskarazko Literaturaren atalean, Pello Lizarralde idazleari eman diote saria *Argiantza* eleberrigatik. Euskarazko Haur eta Gazte Literaturako lanen atalean, berriz, Anjel Lertxundirentzat izan da saria *Haltzaren Muinoa* lanagatik. Euskarazko Literatura Itzulpena saria Joxan Elosegik eraman du Irene Solak idatzitako *Nik kantatu eta dantza egiten du mendiak* liburua euskaratzeagatik.

Epaimahaiaren iritiz, Lizarraldek *Argiantza* liburuko pertsonaien inguruan eraikitzen duen “atmosfera harrigarriak” erabat harrapatzen du irakurlea. Gainera “ahots-narratiboari dagozkionak trebeki erabiliz, indar liriko handiko deskribapenak baliatuz, maisutasunez eraikitako kontakizuna” eskaintzen du idazleak.

Lertxundiren *Haltzaren Muinoa* “kalitate literario” handiko obra dela uste du epaimahaiak, “esaldi eta kapitulu laburrez osaturik dago, aberatsa da tradizioari eta gazte literaturako klasikoei egiten dien erreferentziagatik; aberatsa, halaber, kontatzeko modu arin, poetiko eta zainduagatik”.

Elosegiren itzulpenaz epaimahaiko kideek “estiloaren joritasuna” nabarmendu dute, “jatorrizkoaren jario orobat bixi eta magikoa euskarara isurtzen asmatu du”. Epaimahaiarentzat azpimarratzekoak dira “itzultzaileak erakutsitako irudimena eta sormenerako gaitasuna Irene Solàren estiloak eta testuaren tonuak jarritako erronkei erantzuterakoan”.

Donostiako San Telmo museoan egindako prentsaurrekoan Bingen Zupiria sailburuak nabarmendu duenez, “gure uztaren aniztasuna eta oparotasuna erakusten dute Euskadi Literatura Sariak”.

Datorren azaroaren 18an banatuko dira aurtengo Euskadi Literatura Sariak, Gasteizko Artium Museoan egingo den ekitaldian. Egun horretan zazpi modalitateetako irabazleak bilduko dira. Datorren astean iragarriko dira gainerako lau modalitateetako irabazleak.

Zabaldu:

Tags: Euskadi sariak

← ‘AHOSTEGUNAK’ EKIMENEAN PARTE HARTZEKO IZEN EMATEA ZABALIK

OHIKO FORMATURA ITZULIKO DA HATORTXU ROCK JAIALDIA ABENDUAREN 18AN, ATARRABIAN →

BILATU

Bilatu ... BILATU



Lege oharra



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGUISTICA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Saiburuordetzak) diruz lagundua



KULTUR SHAREA

ZABALDU KULTURAREN LEIHO GUZTIAK ETA EUSKARAZ SHARETU

